



C/San Julián 70.-San Julián Kalea 70
31438 NAGORE(ARCE-ARTZIBAR)
Tfno./Fax: 948790398
C.I.F. P3102800D

**AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE ARCE
ARTZIBARKO UDALA**

POSTA ETA WHATSAPP DIFUSIO TALDEAN SARTZEKO BAIMENA

..... jaunak/andreak,
adin nagusikoak eta jarduteko legezko gaitasun osoa duenak, NAN, eta
..... herrian bizi denak

BAIMENA EMATEN DIO:

ARTZIBARKO UDALARI, IFZ P3102800D eta helbidea San Julian k., 71, 31438 Nagore (Nafarroa), bere telefono zenbakia eta posta helbidea erabiltzeko, **"WhatsApp" difusio-kanal batean eta posta-zerrenda batean sartzeko, bai eta bere etxera informazioa igortzeko ere**, ibarraren, ibarreko herrien eta Udalaren gaiet buruz informatuta eta eguneratuta edukitzeko helburu bakarrarekin. Udalak, ARTZIBARKO UDALAK, deskribatutako helburuetarako bakarrik erabiliko ditu.

WhatsApp mezuak, posta bidezko mezuak eta erantzunak beti pribatuak izango dira komunikazio-arduradunaren (udalaren ordezkaria) eta mezuaren hartzailearen (bizilaguna) artean. Markatu dagozkion laukitxoak, informazioa bide hauetatik jaso nahi baduzu:

- ≥ WhatsApp kanala
- ≥ Informazioa posta elektronikoaren bidez
- ≥ Informazio inprimatua etxean. Helbidea:

_____ (e)n, _____ ko _____ ren _____ (e)an

Stua:

Sinatuta eta gutunazal itxian sartu behar da udaletxeko postontzian (eraikinaren eskuinaldean dago); edo kontzejuetako buruei eman ahal zaie; edo udaleko posta elektronikora eskaneatuta bidali ahal da: auzolan@valledearce.com.

Ematen dizkiguzun datuak ARTZIBARKO UDALA (IFK: P3102800D) arduratzen den tratamenduetan sartuko dira. Tratamenduaren helburua da WhatsApp difusio talde batean eta posta zerrenda batean sartu ahal izatea. Zure datuak gorde egingo dira haiek biltzeko helburua mantentzen den bitartean edo ezabatzeko eskatzen duzun bitartean. Emandako datuekin ez da profilik egingo eta ez da erabaki automatizaturik hartuko. Zure datuak tratatzeko oinarri juridikoa dokumentu hau sinatzean emandako baimena da. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra dagoenean izan ezik, eta ez dago aurreikusita nazioarteko transferentziarik egitea. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak erabil ditzakezu lehen adierazitako posta-helbidean edo helbide elektroniko honetan: ayuntamiento@valledearce.com, eta, hala badagokio, kontsultaren arrazoia edo erabili nahi duzun eskubidea adierazi. Halaber, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango diozu Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.